

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	EIKA S.COOP.
2. Sektorea:	Industria (Osagaiak)
3. Langile kopurua:	448 (Etxebarriako planta nagusian)
4. Webgunea:	www.eika.es
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Egoketa elektrikoari zuzenduriko osagaiak fabrikatzen ditu Eikak; sukaldaginetarako soluzioak merkaturatzen ditu, foku erradiatzaileak eta kontrolak.</p> <p>Merkatuari dagokionez, mundu osoan saltzen du Eikak; bai Amerikan, bai Europan eta baita Asian ere. Etxetresna ekoizleak dira Eikaren bezero nagusienak: Whirlpool, Balay, Teka eta Samsung esaterako.</p> <p>Etxetresnen osagaietan munduko liderra da Eika, merkatuan dauden bitrozeramiken %40k baino gehiagok baitaukate EIKA osagaiaren bat.</p> <p>Etxebarrian (Bizkaian) dauka egoitza nagusia. Eta Queretaron (Mexikon) dauka beste planta bat.</p> <p>Guztira 448 langilek osatzen dute Eika Taldea.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	
Helbide elektronikoa:	
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Tailerreko produkzio makinak euskaraz
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Eika Koop.E. euskararen erabilera handia eta zabala den ingurunean dago kokatuta, Lea-Artibaiko Etxebarria udalerrian hain zuzen ere.</p> <p>Euskararen ezagutza datuak esanguratsuak dira Eikan: bertako langileen %89 euskalduna da. Euskara langileen arteko komunikaziorako tresna garrantzitsua da, beraz.</p> <p>2000. urtean jarri zen martxan euskara plana kooperatiban, orduan lan hizkuntza (idatzizko eta ahozko komunikazioa), paisaia linguistikoa eta lan tresnak (ofimatika eta tailerreko produkzio makinak) gaztelaniaz baitzeuden.</p> <p>Ordutik hona aurrerapauso nabarmenak eman dira euskararen erabileran kooperatiba barruan. Eta garrantzitsuenetariko bat tailerreko produkzio makinak euskaratzea izan da, zalantzarik gabe.</p> <p>448 langilek osatzen dugu Etxebarriko planta. Horietatik 359k tailerrean egiten dugu lan (prozesuko eta lineako teknikari lanetan, produktuaren produkzioan, produkzio makinen mantentze lanetan, produktuaren kalitate prozesuan, biltegiko lanetan...), hau da, kolektiboaren %80k egiten dugu lan bertan.</p> <p>Kontuan izan behar dugu, guztira 300 produkzio makina dauzkagula Eikako tailerrean, eta langileen %75ak dugula harremana makina horiekin.</p>

Berebizikoa da, beraz, Eikako makinak euskaraz egotearen garrantzia.

Lan handia egin dugu horri horrela izateko. Eta, gaur egun, prozesua zehaztuta daukagu lortutakoak atzera pausorik ez izateko. **Hemen prozesua zehatz-mehatz:**

-Produkzio makina berri bat eskatzeko orduan, Q2000 deituriko dokumentua ematen zaio hornitzaileari (kargen koaderno). Q2000 horretan zehaztuta daukagu hornitzaileek **makinen pantailak eta botoiak zein hizkuntzan jarri behar dituzten:**

Makinaren **botoi eta identifikazio guztiak euskaraz** jarri behar dituzte. Eta **pantailak** gutxienez 2 hizkuntzatan, **euskaraz eta gaztelaniaz.**

-Makina **pizterakoan pantaila euskaraz agertuko da beti**, eta gaztelaniaz bistaratu behar badira, hizkuntza aldatzeko botoia sakatuko da.

-Aldaketa hori 5 minutuz mantenduko da, eta, minutu horien ondoren, **pantaila berriro euskarara pasako da automatikoki.**

-Makina **Euskal Herritik kanpo** egiten bada, fabrikatzaileak pantailetakako terminoak emango dizkigu, **guk euskaratu**, eta hornitzaileari emango dizkiogu makinako pantailetan jar ditzaten.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)